

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO-ZERBITZUAK GAINBEGIRATZEKO
AGINTARITZA-TALDEAREN ANTOLAKETA ETA BARNE
FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.

Lehenengo kapitulua. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldearen izaera, osaera eta funtzionamendua.

1. artikulua. Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldearen izaera.
2. artikulua. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldea integratzea.
3. artikulua. Eginkizunak eta eskumenak betetzea.
4. artikulua. Osaera.
5. artikulua. Agintaritza-taldeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
6. artikulua. Idazkaritza.
7. artikulua. Funtzionamendu-araubidea.
8. artikulua. Egoitza.
9. artikulua. Agintaritza-taldearen jarduerak finantzatzea.

Bigarren kapitulua. Osoko Bilkuraren Funtzionamendua.

10. artikulua. Osoko Bilkuraren osaera.
11. artikulua. Osoko Bilkuraren eginkizunak.
12. artikulua. Presidentea.
13. artikulua. Presidenteordeak.
14. artikulua. Kideen eginkizunak eta ahalmenak.
15. artikulua. Idazkaritzaren eginkizunak.
16. artikulua. Osoko Bilkuraren deialdiak.

- 17. artikulua. Osoko Bilkuretako gai-zerrenda.
- 18. artikulua. Osoko Bilkuraren bileren garapena eta osaeraren baliozkotasuna.
- 19. artikulua. Aholkulariak eta behatzaileak bileretara joatea.
- 20. artikulua. Urrutiko Osoko Bilkurak.
- 21. artikulua. Osoko bilkuren aktak.

Hirugarren kapitulua. Lantaldeak.

- 22. artikulua. Lantaldeak sortzea.
- 23. artikulua. Funtzionamendu-araubidea.

Beste xedapen batzuk.

Azken xedapenetatik lehenengoa.

Azken xedapenetatik bigarrena.

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorraren bigarren xedapen gehigarriak Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldea sortzen du, lankide-organo gisa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 145. artikulua araberara.

Xedapen horretan ezartzen denez, Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldea Estatuko eta autonomia-erkidegoko agintaritza independenteen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen ordezkariak osatuko dute ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko erantzukizun nagusia duten ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen esparruan, edo, agintaritza edo organismorik ez dagoen kasuetan, beren prozeduren bidez hautatutako beste ordezkari batzuek.

Xedapen horren laugarren atalak ezartzen du Taldeak bere barne-erregelamendua onartuko duela. Erregelamendu horretan, akordioen araubidea eta horiek Osoko Bilkuran eta lantaldeetan izango duten funtzionamendua zehazten dira, bai eta presidentearen eta idazkaritzaren eginkizunak ere, aktak eta agiriak formalizatzeko, eta horiekin lotutako antzeko beste gai batzuk, antolaketaren, prozeduraren eta finantzen arlokoak.

Agindu hori betez, Erregelamendu hau onartzen da Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldearen erabakiz, 2025eko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran. Agintaritza-taldea horren mende jarriko da bere jardueretan, eta bere baitan ordezkatuta dauden administrazioei eta agintariei jakinaraziko zaie.

LEHENENGO KAPITULUA

Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldearen izaera, osaera eta funtzionamendua

1. artikulua. Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldearen izaera.

Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 145. artikuluan eta Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorraren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, osaera multilateraleko kide anitzeko organoa da, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen arloan elkarlanean aritzeko eta informazioa trukatzeko.

2. artikulua. Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldea integratzea.

Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldea Estatuko eta autonomia-erkidegoko agintaritza independenteen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen ordezkariak osatzen dute ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko erantzukizun nagusia duten ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen esparruan, edo, agintaritza edo organismorik ez dagoen kasuetan, beren prozeduren bidez hautatutako beste ordezkari batzuek.

3. artikulua. Eginkizunak eta eskumenak betetzea.

1. Agintaritza-taldeak Ikus-Entzunezko Komunikazioari buruzko 2022ko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorraren bigarren xedapen gehigarrian esleitutako eginkizunak eta eskumenak beteko ditu, taldeak berak egindako eta onartutako barne-funtzionamenduko Erregelamenduaren arabera.

Erregelamendu horretan aurreikusten ez denari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko da.

2. Agintaritza-taldeak esperientziak eta jardunbide hobeak trukatuko ditu ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen esparru arautzailearen aplikazioari buruz bere eskumen-eremuetan, bereziki honako hauei dagokienez: ikus-entzunezko obra europarra sustatzeko betebeharrak, irisgarritasuna, alfabetatze mediatikoa, adingabeen babesa eta ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoek zerbitzu-publikoaren eginkizuna betetzea.
3. Agintaritza-taldeak elkarlanean jardungo du eta agintaritza bakoitzak, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gainbegiratze-eskumenak gauzatzean duen informazioa trukatuko du.
4. Agintaritza-taldeak informazioa eta jardunbide egokiak partekatuko ditu bideoak trukatzeko plataformaren bidezko zerbitzu-emaileek garatutako mekanismoen funtzionamenduari buruz, erabiltzaileak eta adingabeak babestera bideratutako mekanismoei dagokienez.
5. Agintaritza-taldeak 13/2022 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialak sustatzeko mekanismoen funtzionamenduari buruzko informazioa eta jardunbide egokiak partekatuko ditu.
6. Agintaritza-taldeak bidezkotzat jotzen dituen ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren prestazioari buruzko txostenak egin edo aginduko ditu. Txosten horiek talde honetako kideek ahalik eta gehien kontuan hartu beharko dituzte, bakoitzak bere eremuan eta jarduera-estalduran.

4. artikulua. Osaera.

Agintaritza-taldea honako hauek osatzen dute:

- a) Presidentea, zeina CNMCko presidentea edo hark eskuordetzen duena izango baita.
- b) Bi Presidenteorde. Horietako bat, lehenengo presidenteordea, erkidego-eremuko gainbegiratze-agintaritza independenteetako bati egokituko zaio; eta bestea, bigarren presidenteordea, autonomia-erkidegoetako agintariei, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak barne, baldin eta beren lurraldean ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko lehen mailako erantzukizuna badute, edo, agintaritza edo erakunderik ez badago, beren prozeduren bidez hautatutako beste ordezkari batzuek.

Bi presidenteordeak urtero berrituko dira, antzinasunaren irizpidea jarraituz: lehenengo presidenteordearen kasuan, agintaritza independentea sortu zen data hartuko da kontuan; eta bigarren presidenteordearen kasuan, Autonomia Estatutua ofizialki argitaratu zen data.

- c) Hamazazpi kide, autonomia-esparruko gainbegiratze-arloko gainerako agintaritza independenteen eta autonomia-erkidegoetako agintarien ordezkari gisa, Ceutako eta Melillako hiri autonomoak barne, beren lurraldean ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ikuskatzeko lehen mailako erantzukizuna badute, edo, agintaritza edo organismorik ez dagoen kasuetan, beren prozeduren bidez hautatutako beste ordezkari batzuek.

5. artikulua. Agintaritza-taldeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.

Agintaritza-taldeko kideak ordezkatzan dituzten agintariak edo kargudunak haien gainbegiratze-agintaritzek izendatu eta kargugabetuko dituzte. Izendapenak eta kargugabetzeak idazkaritzari jakinaraziko zaio, behar besteko aurrerapenarekin. Era berean, idazkaritzari bileretara joateko asmoa jakinaraziko zaio.

6. artikulua. Idazkaritza.

1. Agintaritza-taldeko idazkaritza, laguntza- eta laguntza tekniko- eta administrazio-organo gisa, CNMCri dagokio, eta hark izendatzen dituen pertsonak gauzatuko dute.
2. Idazkaritza da presidentearekin, presidenteordearekin eta kideekin komunikazio-egintzen hartzailerak bakarra, eta, beraz, hari zuzendu beharko zaizkio Agintaritza-taldeak jakin behar dituen jakinarazpen, jaso-agiri, bertaratze-agiri, datu-eskaera, zuzenketa edo beste edozein idazki.
3. Agintaritza-taldeko kideen datu pertsonalen erabilera, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren mende egongo da.
4. CNMCren webgunean Osoko Bilkuraren erabakiak argitaratuko dira, Estatuko hizkuntza ofizial eta koofizial guztietan. Itzulpenak CNMCren kontura izango dira, salbu eta autonomia-esparruko gainbegiratze-agintaritzaren batek bere gain hartzen badu itzulpena, eta hala adierazten badu.
5. Idazkaritzak Agintaritza-taldeari dagozkion erabakiak edo bestelako egintzak prestatu eta, hala badagokio, izapidetuko ditu, eta haren artxiboen gordailuzaina izango da.
6. Oro har, Agintaritza-taldeak sortutako dokumentazioa denbora zehaztugabez mantenduko da, eta, ahal bada, euskarri elektronikoan. Idazkaritzak bere

artxiboen tamaina murriztea beharrezkotzat jotzen badu, Osoko Bilkurari lantaldeetatik datozen dokumentuak suntsitzeko eskatu ahal izango dio, gutxienez bost urteko epea igaro ondoren.

7. Agintaritza-taldeko idazkaritzaren eginkizunak betetzeko, CNMCK beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu.

7. artikulua. Funtzionamendu-araubidea.

Agintaritza-taldeak Osoko Bilkuran edo lantaldeetan funtzionatuko du, Erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera, eta bere erabakiek Agintaritza-taldeko kideen bi herenen gehiengo kualifikatua eskatuko dute, Erregelamendu honetan ahobatezkotasuna aurreikusita ez dagoen gaiei dagokienez. Nolanahi ere, dagokion bilerara bertaratutakoei gehiengoaren eta ahobatezkotasunaren araubidea aplikatuko zaie.

8. artikulua. Egoitza.

Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldeak Madrilen du egoitza, CNMCren egoitzan, hain zuzen. Hala ere, ohiko edo ezohiko bilerak egin ahal izango dira beste egoitza batean, taldeko edozein bileraren gai-zerrendako puntu gisa hala erabakitzen denean, taldeko kideren batek aldeztu aurretik eskainita.

9. artikulua. Agintaritza-taldearen jarduerak finantzatzea.

1. Agintariek Agintaritza-taldean parte hartzeak ez du ekarriko agintariek finantza-ekarpenik egitea.
2. Agintaritza-taldearen jardueretan presidente, presidenteorde, kide eta aditu gisa parte hartzeak ez du ekarriko Agintaritza-taldearen ordainsaririk.
3. Osoko Bilkurako bileretara eta aurrez aurreko beste bilera batzuetara joateko lekualdatze-gastuak eta bidaia-gastuak agintari bakoitzaren eta bere ordezkarien

kontura ordainduko dira.

4. Presidentea, edo, hala badagokio, Osoko Bilkurako bileraren anfitrioiak den agintaritzak, bilera horien administrazio-gastuak finantzatzeaz arduratuko da.

BIGARREN KAPITULUA

Osoko Bilkuraren Funtzionamendua

10. artikulua. Osoko Bilkuraren osaera.

Osoko Bilkura, Agintaritzak-taldearen eztabaida- eta erabakitze-organo gorena, hura osatzen duten kide guztiek eta idazkaritzak osatzen dute, CNMCren edo hark eskuordetzen duen pertsonaren lehendakari-tzapean.

Haren funtzionamendua, Erregelamendu honetan berariaz arautzen ez den guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoentzat xedatutakoaren arabera arautuko da.

Agintaritzak-taldeak 13/2022 Legean ezarritako eginkizunak garatuko ditu, batez ere Osoko Bilkuraren funtzionamenduaren bitartez.

11. artikulua. Osoko Bilkuraren eginkizunak.

Osoko Bilkurari honako eginkizun hauek dagozkio:

- a) Barne-erregelamendua onartzea edo aldatzea. Osoko Bilkurako kideek aho batez egingo dute.
- b) Agintari eskudunek honako gai hauen arloan garatzen dituzten jarduerak ezagutzea:
 - Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen esparru arautzailea aplikatzea, bereziki ikus-entzunezko obra europarra sustatzeko betebeharren kontrolari, irisgarritasunari, alfabetatze mediatikoari,

adingabeen babesari eta ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoek zerbitzu-publikoaren eginkizuna betetzeari dagokienez.

- Plataformaren bidez bideoak trukatzeko zerbitzu-emaileak kontrolatzea.
 - Autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialak sustatzea eta bultzatzea.
- c) Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateari buruzko txostenak egitea edo lantaldeei enkargatzea.
- d) Beren jarduera amaitzean, aho batez, eginkizunak eta eskumenak garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen lantaldeak sortzea eta desagitea, dagozkion aginduen bidez. Agindu horietan, garatu beharreko helburuak eta zereginak zehaztuko dira, bai eta, hala badagokio, emaitza partzialak eta ondorioak aurkezteko epea ere.
- e) Lantaldeek egindako txostenen eta bestelako dokumentuen argitalpena onartzea.

12. artikulua. Presidentea.

1. CNMCko presidentea Agintaritza-taldeko presidentea izango da.
2. Taldeko presidentearen lanpostua hutsik badago, edo kanpoan, gaixorik edo legezko beste arrazoren bat badago, lehenengo presidenteordeak ordezkatuko du, eta, halakorik ezean, bigarren presidenteordeak.
3. Presidenteari honako eginkizun hauek dagozkio:
 - a) Agintaritza-taldearen ordezkaritza.
 - b) Osoko Bilkuraren deialdiak erabakitzea, ohikoak zein ezohikoak, gai-zerrenda finkatuz.
 - c) Osoko Bilkuraren buru izatea, eztabaidak moderatzea eta horiek bertan behera uztea erabakitzea.

- d) Agintaritza-taldeak hartutako txostenak bere sinadurarekin legitimatzea.
 - e) Osoko Bilkuraren erabakien akta eta ziurtagiriei oniritzia ematea.
 - f) Erregelamendu hau betetzen dela zaintzea eta erregelamendu hau aplikatzeak sortzen dituen gai guztiak ebaztea.
 - g) Presidenteari dagozkion bestelako eginkizun guztiak betetzea.
4. Presidenteak bere eginkizunak presidenteordeen esku eskuordetu ahal izango ditu.

13. artikulua. Presidenteordeak.

Presidenteordeei dagokie:

- a) Presidenteari lagundu bileretan.
- b) Presidenteordearen berezko eginkizunak eta presidenteak eskuordetzen dituenak.

14. artikulua. Kideen eginkizunak eta ahalmenak.

1. Kide guztiei dagokie:

- a) Egoki irizitako gaiak Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartzeari proposatzea, bilera egiteko aurreikusitako eguna baino bi aste lehenago gutxienez.
- b) Osoko Bilkurara joatea, eztabaidetan parte hartzea, proposamenak egitea eta galderak egitea.
- c) Agintaritza-taldearen eginkizunak betetzeko behar den informazioa jasotzeko eskubidea baliatzea, idazkaritzari idatziz eskatuz.
- d) Botoa emateko eskubidea baliatzea.
- e) Taldearen idazkaritzaren bitartez, akten ziurtagiriak emateko eta bertan

dauden aurrekari eta dokumentu guztiak agerian jartzeko eskatzea.

- f) Agintaritza-taldeko kide izateari berezkoak zaizkion beste eginkizun guztiak.
2. Kideek ezin izango dute, inola ere, Agintaritza-taldearen ordezkaritza edo ahalmenak bereganatu, salbu eta berariaz eman bazaie Osoko Bilkuraren erabakiz kasu zehatz baterako.

15. artikulua. Idazkaritzaren eginkizunak.

Idazkaritzari honako eginkizun hauek dagozkio:

- a) Presidenteak aginduta, Osoko Bilkuretarako deia egitea, bai eta kideei dei egitea ere.
- b) Osoko Bilkurak jakin beharreko komunikazioak edo bestelako idazkiak jasotzea, eta dagokien izapidea ematea.
- c) Osoko Bilkuraren bilerak prestatzea eta Agintaritza-taldearen eginkizunak betetzeko eta gaiak tratatzeko beharrezkoa den edo interesgarria den dokumentazioa prestatu eta banatzea.
- d) Bilkuretako aktak egitea eta hartutako erabakien ziurtagiriak egin, haien zaintzaz arduratuz.
- e) Taldeak hartutako erabakiak, Taldeari buruzko informazio egokia eta egindako edo enkargatutako txostenak CNMCren webgunean argitaratzea.
- f) Taldearen xedearekin eta edukiarekin zerikusia duten administrazio-jarduerei buruzko informazioa trukatzeko.
- g) Osoko Bilkuraren eta lantaldeen lanak koordinatzeko beharrezko laguntza ematea.
- h) Idazkaritzari dagozkion edo presidenteak esleitutako beste edozein funtzio.

16. artikulua. Osoko Bilkuraren deialdiak.

1. Agintaritza-taldea Osoko Bilkuran bilduko da, ohiko izaerarekin, gutxienez urtean behin, eta lantaldereen baten jarduerak hala eskatzen duenean.
2. Presidentearen ekimenez, edo, gutxienez, 10 kidek proposatuta, aztertu beharreko gaiak berariaz adierazita, Agintaritza-taldea ezohiko Osoko Bilkuran bildu ahal izango da.
3. Osoko Bilkuren deialdia, bai ohiko bilkuran zein ezohikoan, presidenteak egingo du, behar besteko aurrerapenarekin, eta, nolanahi ere, hamabost egun naturaleko aurrerapenarekin, presazko arrazoiengatik izan ezik, hirurogeita hamabi ordura murriztuko baita.
4. Nolanahi ere, deialdiekin batera gai-zerrenda, aurreko bilkurako akta eta beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuko dira, Osoko Bilkuraren eguna, tokia eta ordua adierazita.

17. artikulua. Osoko Bilkuren gai-zerrenda.

1. Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretako gai-zerrendan honako hauek jasoko dira: gai-zerrendaren proposamenaren onarpena, aurreko bileraren aktaren irakurketa eta, hala badagokio, onarpena, bai eta presidenteak erabakitzen dituen gainerako puntuak eta aurreko bilkuretan hartutako erabakien jarraipena ere. Gai-zerrendan aparteko gai bat sartzeko, Agintaritza-taldeko kideen bi herenen gehiengoa beharko da.
2. Ezohiko Osoko Bilkuretako gai-zerrendan, presidenteak, edo, hala badagokio, hala eskatu dutenek proposatutako gaiak jasoko dira.

18. artikulua. Osoko bilkuraren garapena eta osaeraren baliozkotasuna.

1. Agintaritza-taldearen Osoko Bilkura baliozkoa izan dadin, beharrezkoa izango da presidentea eta idazkaritza edo, hala badagokio, haien ordezkioak eta, gutxienez, Osoko Bilkurako kideen erdiak bertaratzea.
2. Agintaritza-taldeko kideak haren bileretan ordezkatuak izan daitezke, absentzia edo gaixotasunik izanez gero, eta, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean. Hori aldez aurretik idazkaritzari idatziz jakinarazi beharko zaio.
3. Ezin izango da gai-zerrendan agertzen ez den gairik adostu, salbu eta, taldeko kide guztiak bertan direla, aho batez adierazten bada gaia presakoa dela.

19. artikulua. Aholkulari eta behatzaileak bileretara joatea.

Osoko Bilkuretara lantaldeetako koordinatzaileak eta presidenteak aztertu beharreko gairen bati buruz gonbidatutako aholkulariak joan ahal izango dira, bai eta autonomia-erkidegoetako gainbegiratze-agintaritza independenteen edo autonomia-erkidegoetako aholkulariak ere, Osoko Bilkurako kideek hala eskatuta, kide bakoitzeko aholkulari bat gehienez ere. Hori aldez aurretik idazkaritzari jakinarazi beharko zaio, eta gonbidatuek kideei edo haien ordezkoei laguntzen dieten teknikariak izan beharko dute.

Nolanahi ere, aholkulari horiek ez dute boto-eskubiderik izango.

20. artikulua. Urrutiko Osoko Bilkurak.

1. Taldeko presidenteak, premia- edo egokitasun-arrazoiak direla medio, Osoko Bilkuraren deialdia, eraketa, bilkurak egitea eta erabakiak urrutitik hartzea erabaki ahal izango du, aurrez aurrekoen prozedura eta ondorio berberekin, artikulua honetan ezarritako berezitasunekin. Era berean, presidenteak sistema mistoa, aurrez aurrekoa eta urrutikoa erabaki ahal izango du, arrazoi berberengatik eta prozedura eta ondorio berberekin.
2. Mistoak edo urrutikoak diren bilkuretan, presidentea, presidenteordea, kideak

eta idazkaritza hainbat lekutan egon ahal izango dira, baldin eta beren nortasuna, adierazpenen edukia, adierazpenak noiz egiten diren, denbora errealean komunikatzen direla eta bilkurak irauten duen bitartean baliabideak eskuragarri daudela bitarteko elektronikoen bidez ziurtatzen bada.

3. Besteak beste, bitarteko elektroniko balioduntzat joko dira, posta elektronikoak, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.
4. Deialdietan adieraziko da zein baldintzatan egingo diren bilkurak, konexio-sistema eta, hala badagokio, zein lekutan dauden eskuragarri bilerara joateko eta bertan parte hartzeko behar diren baliabide teknikoak.
5. Modu horretan egindako bilkurak taldearen egoitzan egindakotzat joko dira.

21. artikulua. Osoko Bilkuraren bileren aktak.

1. Agintaritza-taldeko idazkaritzak Osoko Bilkuraren akta egingo du. Akta hori Osoko Bilkuraren hurrengo bileran onartu ondoren, idazkaritzak sinatuko du eta presidenteak ikus-onetsiko du. Ezohiko moduan eta egokitasun-arrazoiak direla-eta, Osoko Bilkura amaitzen den unean bertan onartu ahal izango da.
2. Aktak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:
 - a) Bertaratutakoen aipamena.
 - b) Bilerako gai-zerrenda.
 - c) Bilera non eta noiz egin den.
 - d) Eztabaida-puntu nagusiak.
 - e) Hartutako erabakien edukia, hala badagokio.
3. Agintaritza-taldeko edozein kidek eskubidea du bilkura bakoitzean bere esku-hartzea osorik transkribatzeko eskatzeko, baldin eta idatziz eskatzen badu eta zehatz-mehatz jasotzen badu ekitaldi berean edo gehienez ere hamabost egun naturaleko epean. Hala jasoko da aktan, eta horren idazkiaren kopia egiaztatua

erantsiko da.

HIRUGARREN KAPITULUA

Lantaldeak

22. artikulua. Lantaldeak sortzea.

1. Agintaritza-taldearen Osoko Bilkurak, aho batez, lantaldeak sortzea erabaki ahal izango du, gai jakin batzuen tratamendu espezializatua egiteko, informazioa trukatzeko edo gai zehatzei buruzko txostenak egiteko.
2. Oro har, Osoko Bilkurak onartutako agindu baten bidez ezarriko da lantaldearen helburua, osaera —nahi duten agintari guztien ordezkariak parte hartu ahal izango dute— eta lanak amaitzeko epea. Osoko Bilkura lantaldeak egiten dituen lan- eta jarduera-bilera guztien jakinaren gainean egongo da.
3. Lantalde bakoitzaren osaera eta funtzionamendu-araubidea, bai eta haren xedeari dagozkion eginkizunak ere, eraketa xedatzen duen Osoko Bilkuraren erabakian zehaztu beharko dira.
4. Osoko Bilkurak lantaldeak garatutako lan- eta jarduera-bilera bakoitzaz jakingo du.

23. artikulua. Funtzionamendu-araubidea.

1. Lantalde bakoitzeko adituak izendatzea Ikus-entzunezko Komunikazio-zerbitzuak gainbegiratzeko Agintaritza-taldeko kideei dagokie, eta taldeetan autonomia teknikoa izango dute, agintaldian ezar ditzaketen mugak alde batera utzi gabe.

2. Lantaldeak ahalik eta adostasun handienarekin kideetako bat koordinatzaile izendatuko du.
3. Idazkaritzak interes-adierazpenak deituko ditu, bai agintaritza bakoitzak adituak izendatzeko, bai lantalde bakoitzeko koordinatzaileak izendatzeko eta lantalde bakoitzeko kideek beren koordinatzailea izendatzeari buruz hartzen duten erabakiaren berri emango zaio.
4. Lantalde bakoitza autonomoa da lan-denboraren plangintzari dagokionez, Osoko Bilkurak horri buruzko jarraibideak ematen ez baditu.
5. Lantaldeen jarduera guztia Agintaritza-taldearen barne-izaerakoa da, eta, beraz, dokumentuek ez dute kanpoko eraginik izango, eta lantaldeetako kideek isilpekotasun-betebeharra izango dute. Hala ere, lantaldeak uste badu dokumentu jakin batzuk zabaldu edo argitaratu beharko liratekeela, Osoko Bilkurari eskatu ahal izango dio.
6. Lantalde bakoitzeko koordinatzaileak bere jardueren berri emango du Osoko Bilkuraren bilera bakoitzean.
7. Lantalde orok, bere izaera edozein dela ere, Osoko Bilkurari bidali beharko dizkio txostenak, Agintaritza-taldeak egindako txosten-kategoria lortzeko.
8. Lantalde batek ez badu adostasunik lortzen agindutako txosten bat egiteari dagokionez, txosten arrazoitu bat igorriko zaio Osoko Bilkurari.
9. Lantalde bakoitzeko kideek aho batez hala erabakita, azpitaldeak sortu ahal izango dira Osoko Bilkurak Lantaldeari agindutako zereginetako batzuk gauzatzeko.
10. Edozein lantalderen barruan azpitalderen bat sortzen bada, haren koordinazio-

eginkizunak nork egingo dituen zehaztu beharko da, eta azpitalde horretan egiten diren lanei buruzko informazioa eman beharko zaio taldeari.

11. Lantaldeek, agindutako lanak amaitu ondoren, txostenak eta proposamenak Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkiote.

BESTE XEDAPEN BATZUK

Azken xedapenetatik lehenengoa.

Erregelamendu hau aldatzeko edozein proposamen, Agintaritza-taldeko presidentearen bitartez aurkeztu beharko da, Osoko Bilkurari helarazteko.

Erreforma-proposamen bat aurkeztu ondoren, Osoko Bilkurak erabakiko du, haren irismenaren eta edukiaren arabera, ezohiko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzea edo lantalde bati bidaltzea. Lantalde hori berariaz sortuko da, Osoko Bilkurak zehaztutako osaerarekin eta aginduekin.

Lantaldeak, hala badagokio, proposamen bat aurkeztuko dio Osoko Bilkurari, horretarako ezarritako epean, eta bertan bozkatuko da.

Osoko Bilkurako kideek aho batez onartu beharko dituzte Erregelamenduaren erreformak, eta Osoko Bilkurak onartzen dituen unetik aurrera sartuko dira Erregelamenduan.

Azken xedapenetatik bigarrena.

Barne-erregelamendu hau Osoko Bilkurak onartzen duen egunean bertan sartuko da indarrean.